

ANTOLAKUNTZA ETA KONTUETAKO BATZORDEA /
COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

<u>GETXOKO</u> <u>UDALEKO</u> <u>ANTOLAKUNTZA</u> <u>ETA</u> <u>KONTUETAKO</u> <u>INFORMAZIO</u> <u>BATZORDEAK</u> <u>2019KO</u> <u>ABENDUAREN 16AN</u> <u>EGINDAKO</u> <u>BILKURAREN AKTA</u>	<u>ACTA DE LA SESIÓN</u> <u>CELEBRADA POR LA COMISIÓN</u> <u>INFORMATIVA DE</u> <u>ORGANIZACIÓN Y CUENTAS</u> <u>DEL ILUSTRE AYUNTAMIENTO</u> <u>DE GETXO, EL DÍA 16 DE</u> <u>DICIEMBRE DE 2019</u>
<u>BILDUTAKOAK</u> Batzordeburua	<u>SEÑORES ASISTENTES</u> El Presidente

IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA jn. (EAJ-PNV)

BATZORDEKIDEAK // VOCALES

KELTSE EIGUREN ALBERDI and. (EAJ/PNV)
JANIRE OCIO CELADA and. (EAJ/PNV)
ALVARO GONZÁLEZ PÉREZ jn. (EAJ/PNV)
CARLOS SERGIO ATXOTEGI jn. (EAJ/PNV)
GONZALO ZORRILLA LEQUERICA PAÑEDA jn.
(PP)
ALICIA GONZÁLEZ DEL VALLE FRANCOS and.
(PP)
CRISTINA ZAMORA CHUQUIGUANGA and. (EH
BILDU)
IBON RODRÍGUEZ LARRINAGA jn. (EH BILDU)
CARMEN DÍAZ PÉREZ and. (PSE-EE (PSOE))
PAULA AMIEVA CLEMENTE and.
(ELKARREKIN PODEMOS)

BATZORDEKO IDAZKARIA // SECRETARIA COMISIÓN

CRISTINA ORBEZUA GONZÁLEZ and.

KONTUHARTZAILEA // INTERVENTORA

NURIA HERNÁNDEZ SOTO and.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2019ko abenduaren 16an, 13:45ean, Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordea bildu da.

Jasota geratu da Gonzalo Ayo Jiménez jauna eta Francisco Javier Elorza Hormaeché jauna entzule gisa bertaratu dira bilerara.

Bertaratu dira aipatutako zinegotziak, Giza Baliabide eta Antolaketa arduradun den Jesús María Lakarra Arrastia jauna, Ondare, Kontratazio eta Erosketa Arloko arduradun den Leire Bilbao Fuente andrea, Idazkaritza Orokorra AOT Letraduna den Larraitz Aberasturi Ibarra andrea, kontu hartzaile orokorra eta ni, batzordeko idazkaria, eta honako gai hauek jorratu dira:

1. 2019-11-21EKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Ibon Rodríguez jaunak eskatu du hemendik aurrera Batzorde honen aktak hitzez hitz jasotzeko, hau da, grabatuta dagoen guztia idaztea. Eskeraren arrazoia da urriaren 24ko saioaren grabazioaren kopia emateko eskatu ondoren hainbat oztopo eta eragozpen jarri direla, beste alderdi batek beste Batzorde batean egin zuen eskaerari jarri ez zitzaizkionak.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, el día 16 de diciembre de 2019, a las 13:45 horas, se reúne la Comisión Informativa de Organización y Cuentas.

Se hace constar que don Gonzalo Ayo Jiménez y don Francisco Javier Elorza Hormaeché asisten a la sesión en calidad de oyentes.

Con la asistencia de las/os Sras/Sres. Concejales/es mencionadas/os, del Responsable de Recursos Humanos y Organización don Jesús María Lakarra Arrastia, de la Responsable de Patrimonio, Contratación y Compras doña Leire Bilbao Fuente, de la TAG Letrado de Secretaría General doña Larraitz Aberasturi Ibarra, de la Interventora General y de mí, la Secretaria de la Comisión, se trataron los siguientes asuntos:

1. APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 21.11.2019.

Don Ibon Rodríguez solicita que de ahora en adelante las actas de esta comisión sean literales, es decir, que se recoja todo lo que está grabado. El motivo de la solicitud está en que, habiendo solicitado que se entregue copia de la grabación de la sesión del 24 de octubre de 2019, se han puesto diversos obstáculos que no se pusieron a la petición que hizo otro partido en otra comisión.

Halaber, Rodríguez jaunak adierazi du azaroko bilkurako aktan, Gobernu Taldeak galdera bati emandako erantzunaren zati bat letra lodiz nabarmendu dela, eta kentzeko eskatu du. Onartu egiten da eskaera hori, eta onartutzat jo da aurreko bilkurako akta, 2019ko azaroaren 21ekoa, adierazi den aldaketa horrekin.

Batzordeburuak adierazi du ez zaiola eragozpenik jarri taldeko edozein pertsonari urriko audioa entzutera gerturatzeko. Adierazi du, halaber, ez duela inolako zentzurik aktak hitzez hitz egiteak; beraz, orain arte bezala egiten jarraituko da eta norbaitek bere hitzak hitzez hitz jasotzea nahi badu, eskatu besterik ez du.

Rodríguez jaunak erantzun dio esanez oztopoak edo eragozpenak direla eskatzaileak izan behar duelako entzutera hurbildu behar duenak, udal langileen lan-ordutegiaren barruan egin behar duelako eta argudiatu delako ez dela audioa ematen grabazioaren osotasunari eusteko. Gai horri dagokionez Ibon Rodríguez jaunak azaldu du agiri publiko baten kopia eskatu dela, hau da, jatorrizkoa udal artxiboetan osorik gordetzen dela. Gainera, berak Udaletxetik kanpo lan egiten duela kontuan hartuta, bere lanaldi propioa du, eta horrek egun libre bat hartzera behartuko luke. Hori ez ezik, ez du ulertzen zergatik izapidea euskara teknikariarekin kudeatu eta gauzatu behar den. Auzi horiek guztiak oztopoak dira bere eskubidea benetan gauzatzeari dagokionez. Udalbatzaren kasuan grabazioak esekita daude. Ostean igorri den e-mailari ere ez zaio erantzun.

Asimismo el Sr. Rodríguez señala que en el acta de la sesión del mes de noviembre se ha resaltado en negrita parte de la contestación que da el equipo de gobierno a una pregunta y solicita que se elimine. Se acepta dicha solicitud, dándose por aprobada el acta de la sesión anterior de 21 de noviembre de 2019, con esa modificación.

El Presidente de la Comisión indica que no se ha puesto ningún obstáculo para que cualquier persona del grupo se acerque a escuchar el audio del mes de octubre. También señala que no tiene ningún sentido que las actas sean literales, por lo que se seguirá haciendo como hasta ahora y si alguien quiere que sus palabras se recojan literalmente no tiene más que solicitarlo.

Responde el Sr. Rodríguez que los obstáculos consisten en que se ha respondido que es el solicitante quien debe acercarse a escuchar, que debe hacerlo dentro del horario laboral de los empleados municipales y que se ha argumentado que no se entrega el audio para mantener la integridad de la grabación. A este respecto don Ibon Rodríguez explica que se ha solicitado una copia de un documento público, es decir, que el original se conserva íntegro en los archivos municipales. Además, teniendo en cuenta que él trabaja fuera del Ayuntamiento tiene su propia jornada laboral, lo que le obligaría a coger un día libre. Tampoco entiende porque se debe gestionar el trámite con el Técnico de Euskera. Todas estas cuestiones son obstáculos para hacer efectivo su derecho. En el caso del Pleno las grabaciones están colgadas. Tampoco se ha respondido al e-mail que se ha enviado posteriormente.

Uriarte jaunak adierazi du urriko akta une egokian eta arazorik gabe onetsi zela, eta gaineratu du hala Rodríguez jaunak nola bere taldeko edozein pertsonak aukera dutela audioa entzuteko, aldez aurretik hitzordua adostuz Euskara Sailarekin edo Batzordeko idazkariarekin, egoki iritziz gero. Horri dagokionez gogorarazi du bere taldean pertsona batzuk liberatuta daudela eta aukera dutela hori guztia udaleko langileen lan-ordutegiaren barruan egiteko.

Ibon Rodríguez jaunak berriro esan du erantzunaren idazkiak zioela eskatzailea zela audioa entzutera joan behar zuena, ez taldeko edozein pertsona, orain esaten den bezala. Era berean, Gobernu Taldeak irizpidea noiz aldatu duen galdetu du; izan ere, beste talde bati beste Batzorde baten audioa eman zitzaion, eta hori da orain EH Bilduri ukatzen ari zaiona. Uriarte jaunak erantzun du esanez ez duela horren berri, baina kontsultatu egingo duela. Adierazi du, halaber, eman zen erantzuna zentzu zabalean interpretatu behar dela, hau da, beste pertsona bat izan daitekeela, eskatzaileaz gain, hura entzutera hurbil daitekeena.

Ignacio Uriarte jaunak adierazi du bere solaskideak duen interes bakarra polemika sortzea dela, eta Rodríguez jaunak erantzun du eztabaida honen helburua korporazioko kideen eskubideak defendatzea dela etengabe aldatzen diren irizpide arbitrarioen aurrean. Aztergai dugun kasu honetan ukatu egin da dokumentu publiko baten kopia, eta batzordeetako grabazioek Osoko Bilkuretako tratamendu bera izan beharko lukete, bilkurak ere publikoak baitira. Azkenik, defendatzen du ez

El Sr. Uriarte manifiesta que el acta del mes de octubre se aprobó en su momento sin problemas y añade que, tanto el Sr. Rodríguez como cualquier persona de su grupo tienen la posibilidad de escuchar el audio, consensuando previamente la cita con el Departamento de Euskera o con la Secretaria de la Comisión, si así lo consideran oportuno. A este respecto recuerda que hay personas liberadas en su grupo con disponibilidad para hacerlo dentro del horario laboral de los trabajadores del Ayuntamiento.

Don Ibon Rodríguez insiste en que el escrito de contestación decía que era el solicitante quien debía acudir a escuchar el audio, no cualquier persona del grupo como se dice ahora. Asimismo pregunta cuándo el equipo de gobierno ha cambiado el criterio, ya que a otro grupo se le entregó el audio de otra comisión, que es lo que ahora se está negando a EH Bildu. Responde el Sr. Uriarte que no tiene noticias al respecto, si bien va a consultarlo. También indica que la respuesta que se dió debe interpretarse en un sentido amplio, es decir, que puede ser otra persona, además del solicitante, quien puede acercarse a escucharlo.

Don Ignacio Uriarte manifiesta que el único interés que tiene su interlocutor es el de crear polémica, contestando el Sr. Rodríguez que el objetivo de este debate es defender los derechos de los corporativos frente a los criterios arbitrarios que cambian continuamente. En este caso se ha negado la copia de un documento público y las grabaciones de las comisiones deberían tener el mismo tratamiento que las del Pleno, ya que las sesiones también son

dagoela polemikarik beste aldeak eragiten ez badu, eta ez dela zuzena beste alde horrek beti tranpa eginez jokatzeari.

Ignacio Uriarte jaunak berriz ere esan du agiria akta dela, eta akta Rodríguez jaunak eta bere taldeak onartu dutela.

Puntu honetara iritsita Amieva andreak Rodríguez jaunaren tesiarekin bat egiteko esku hartu du eta korporazioko kideen eskubideen urraketa dela adierazi du, agiri publiko bat baita. Urraketa hori larriagoa bihurtzen da eskatzaileari bere konfiantzako beste pertsona bat bidali behar duela adierazten zaionean, eskubideak guztientzat baitira, liberatuta egotea ala ez alde batera utzita. Era berean, galdetu du ea audioa ezin eskuratzeko arrazoia akta onartuta egotea den.

Uriarte jaunak adierazi du Batzordeburutza arrazoirik gabe salatzen ari dela, eta azpimarratu du akta, dokumentua bera delako, bilkuran zeuden korporazioko kide guztiek onetsi zutela. Hizpide dugun kasu honetan aktaren audiora iristeko aukera eskatu da. Eskaera horri egun gutxiren buruan eman zaio erantzuna, eta grabazioa entzuteko aukera eman da, hura zaintzen duen funtzionarioaren edo besteren baten aurrean, hala eskatuz gero. Era berean, entzuteko interesa duenak beste pertsona bat bidal dezake, eta hori egiteko ordutegia oso zabala da. Horregatik, ez du ulertzen Amieva andreak arrazoirik gabeko akusazioa egitea.

Amieva andreak berriz ere esan du ez zaiola bere galderari erantzun, eta Uriarte jaunak erantzun dio argi dagoela

públicas. Finalmente defiende que no hay polémica si la otra parte no la provoca y que no es correcto que esa otra parte siempre juegue haciendo trampa.

Don Ingacio Uriarte insiste en que el documento es el acta y el acta está aprobada por el Sr. Rodríguez y por su grupo.

Llegados a este punto la Sra. Amieva interviene para apoyar la tesis del Sr. Rodríguez, manifestando que se trata de una vulneración de los derechos de los corporativos, ya que es un documento público. Dicha vulneración se agrava cuando al solicitante se le indica que al no estar liberado tiene que mandar a otra persona de su confianza, ya que los derechos son para todos/as, independientemente de si hay liberación o no. Asimismo pregunta si la razón para no poder acceder al audio es que el acta este ya aprobada.

El Sr. Uriarte señala que la presidencia está siendo acusada injustificadamente e insiste en que el acta, que es el documento, fue aprobada por todos los corporativos presentes en la sesión. En este caso se ha pedido el acceso al audio del acta, solicitud a la que se ha dado respuesta a los pocos días ofreciendo la opción de escuchar la grabación en presencia del funcionario que la custodia u otro, si así se pide. Igualmente, quien tiene interés en escucharla puede mandar a otra persona y el horario para hacerlo es muy amplio. Por ello no entiende la acusación injustificada de la Sra. Amieva.

La Sra. Amieva insiste en que no se ha respondido a su pregunta, a lo que el Sr. Uriarte contesta que claro que se puede

dagoeneko onartuta dagoen akta baten audioa eskura daitekeela, azaldu den bezala. Orduan Amieva andreak galdetu du ea nonbait adierazten den grabazioa entzun ahal izateko funtzionario baten aurrean egin behar dela, eta Uriarte jaunak erantzun du grabazioa zaintzen duen pertsona dela, eta argudiatzen du kontrakoa ere ez duela inon jartzen.

Batzordeburuak itxiztat jo du eztabaida, eta hurrengo gaiari heldu dio.

2. LANPOSTUEN BALORAZIOAREN ONDORIOZ LANPOSTUEN ZERRENDAN ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Batzordeburuak gaiaren sarrera egin du. Jarraian Lakarra jaunak puntu honetara iristeko jarraitu den prozesua zein izan den zehaztu du, lanpostuen balorazioaren onurak eta alderdi positiboak aztertu ditu eta Batzordearen lana azaldu du.

Ibon Rodríguez jaunak gogoratu du, beste behin ere, deialdiarekin batera bidali den espedienteko dokumentazioaren zati bat gaztelaniaz baino ez dagoela. Inguruabar hori agerian geratu zen aurreko bilkuran, eta baita beste Batzorde batzuetan ere, eta irtenbide bat eman behar zaio. Era berean, bere taldeak proposamenaren aldeko botoa emango duela iragarri du, sindikatuen oniritzia izanez gero hori egiteko konpromisoa hartu baitzuen, eta hori da kasu honetan gertatzen dena.

acceder al audio de un acta que ya está aprobada, tal y como se ha explicado. Pregunta entonces la Sra. Amieva si en algún sitio se indica que para escuchar la grabación debe hacerse delante de un funcionario, contestando el Sr. Uriarte que se trata de la persona que custodia la grabación y argumenta que tampoco pone en ningún sitio lo contrario.

El Presidente da por cerrado el debate y se pasa al siguiente asunto.

2. PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO COMO CONSECUENCIA DE LA VALORACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO.

El Presidente de la Comisión hace una introducción del asunto. A continuación el Sr. Lakarra detalla cuál ha sido el proceso seguido para llegar a este punto, analiza las bondades y aspectos positivos de la valoración de puestos de trabajo y explica la labor del comité.

Don Ibon Rodríguez recuerda que, una vez más, parte de la documentación del expediente que se ha enviado junto con la convocatoria está únicamente en castellano. Dicha circunstancia se puso de manifiesto en la anterior sesión al igual que en otras comisiones y debe darse una solución. Asimismo anuncia que su grupo va a votar positivamente la propuesta, ya que se comprometió a hacerlo en el caso de que contara con el visto bueno de los sindicatos, que es lo que ocurre en este caso.

Paula Amieva andreak adierazi du aurrekontua Batzordera ekarri zenean aurrekontu-plantillako aldaketei eman zitzaien azalpen bakarra organigrama berrian eta lanpostuen balorazioan justifikatzen zirela izan zela, eta orain azaldu dela hori. Aurrekontu-plantilla horrek zenbateraino aurreratzen zuen LPZ berri hau?

Uriarte jaunak erantzun dio esanez aurrekontuen proiektuaren sarreran 1. kapituluak zekartzan aldaketen azalpena egin zuela: Udaltzaingoaren kotizazio handiagoa, lanpostuen balorazioa (behin-behineko emaitzak), administrari laguntzaileak administrari izateko sustapena, langileak ofizial bihurtzeko sustapena...

Amieva andreak hizkuntza inklusiboaren aplikazioan egin de akatsen bat aipatzen du, hain zuzen ere proposamenaren bigarren atalean (lizentziaduna). Era berean, galdetu du ea orain esku hartze soziokomunitarioko teknikariek bakarrik hitz egiteak (lehen berdintasuna, immigrazioa, gazteria...) esan nahi duen ez dela aintzat hartuko lanpostu bakoitzerako zehaztasuna eta pertsona horietako bakoitzaren berariazko prestakuntza.

Giza Baliabide eta Antolaketa arloko arduradunak erantzun du substratua komuna dela, baina bakoitzak bere zereginak dituela. Hala ere, orain monografia dagoen bezala, sartzeko titulazioak berberak izango lirateke, baina hori zehatzago aztertuko da hautaketa-prozesu bakoitza deitu behar denean. Nolanahi ere, monografiak anbibalentzia hori jasotzen du eta plaza bakoitzaren

Doña Paula Amieva señala que cuando se trajo el presupuesto a la comisión la única explicación que se dio a los cambios en la plantilla presupuestaria fue que se justificaban en el nuevo organigrama y la valoración de puestos, y es ahora cuando se explica. ¿Hasta qué punto esa plantilla presupuestaria ya anticipaba esta nueva RPT?

Responde el Sr. Uriarte que en la introducción del proyecto de presupuesto hizo una explicación de las modificaciones que llevaba el capítulo 1: la mayor cotización de la policía, la valoración de puestos de trabajo (los resultados provisionales), la promoción de auxiliares a administrativos, la promoción de operarios a oficiales...

La Sra. Amieva cita algún error en la aplicación del lenguaje inclusivo en el apartado segundo de la propuesta (licenciado). Asimismo pregunta si el hecho de que ahora se hable solo de los técnicos de intervención socio-comunitaria (antes igualdad, inmigración, juventud...) implica que va a dejar de reconocerse lo concreto y la formación específica de cada una de esas personas para cada uno de esos puestos.

El Responsable de Recursos Humanos y Organización responde que el sustrato es común pero que cada uno tiene sus tareas. No obstante, tal y como está ahora la monografía, las titulaciones para el acceso serían las mismas, pero eso se examinará con más detalle cuando se vaya a convocar cada proceso selectivo. De todas formas la monografía recoge esa ambivalencia y la dotación concreta de

zuzkidura zehatzak prestakuntza-baldintza espezifikokoak adierazten ditu.

Paula Amieva andreak eguneratu ezin den osagarri pertsonal iragankorrari buruzko galdera egin du. Lakarra jaunak esan du eguneratu ezin den osagarri baten formularen alde egin dela, baina xurgagarria ere ez dela, hau da, izoztuta geratzen dela, eta horrek esan nahi du ordainsari-igoerek ez diotela eragingo, baina bai eguneratu egingo direla soldataren gainerako kontzeptuak. Era berean, gogorarazi du egoera horrek 18 lanposturi baino ez diela eragiten, eta horietatik erdiak Herritarren Arretarako Bulegoetako enpleguak direla. Lanpostu horiek laster C1era sustatzea itxaroten da, eta eragin txikia izango duela ondorioztatu da.

Amieva andreak adierazi du berrantolaketa berri bat onartzeaz hitz egin dela, eta galdetu du ea horrek organigrama berri bat, LPZ berri bat... onartuko dela esan nahi duen, eta ea ezin izan den balorazioaren aurretik egin.

Lakarra jaunak erantzun du esanez kontua gobernu talde berriak arloekin egindako bileren emaitza izango den antolaketa-egiturari buruzko dekretu bat onartzea dela. Bilera horietan aztertuko da, bakoitzak denbora horretan izan duen esperientzia ikusita, zertan hobetu daitekeen behinola onartu zen organigrama, eta horietako bakoitzaren diagramak berregituratu ahal izango dira. Balorazioaren aurretik edo ondoren hori egiteak ez zituen emaitzak aldatuko. Eraginkortasunaren aldeko apustua egin da; izan ere, arlo guztiekin aurretiko negoziazioa egin behar izan balitz, ezinezkoa zatekeen gaur egun egindako balorazioa eskuetan izatea. Gaineratu du,

cada plaza indica los requisitos específicos de formación.

Doña Paula Amieva pregunta por el complemento personal transitorio no actualizable. El Sr. Lakarra explica que se ha optado por la fórmula de un complemento no actualizable, pero tampoco absorbible, es decir, que queda congelado, lo que supone que las subidas retributivas no le van a afectar, pero sí se actualizarán el resto de los conceptos del salario. Asimismo recuerda que esta situación solo afecta a 18 puestos, de los cuales la mitad son los empleados/as de las OACs, que en breve se espera que promocionen al C1, concluyendo que va a tener poca incidencia.

La Sra. Amieva señala que se ha hablado de aprobar una nueva reorganización y pregunta si eso supone que se va a aprobar un nuevo organigrama, una nueva RPT... y si no se hubiese podido hacer antes de la valoración.

Responde el Sr. Lakarra que se trata de que el nuevo equipo de gobierno apruebe un decreto de estructura organizativa que sea fruto de las reuniones con las áreas. En dichas reuniones se analizará, a la vista de la experiencia de cada una de ellas durante este tiempo, en qué se puede mejorar el organigrama que se aprobó en su momento y se podrán reestructurar los diagramas de cada una de ellas. Hacer esto antes o después de la valoración no iba a cambiar los resultados de la misma. Se ha apostado por la eficacia, ya que si se hubiese tenido que hacer una negociación previa con todas las áreas no hubiese sido posible tener la valoración hecha a fecha de hoy. También

halaber, ez dela beharrezkoa izango balorazio berri bat egitea, baina mantentze edo eguneratze faseak egongo direla.

Paula Amieva andreak Negoziazio Mahaiko akta guztiak sinatuta dauden galdetu du. Lakarra jaunak erantzun dio esanez balorazioari buruzko guztiak sinatuta daudela. Adierazi du oraindik ere sinatu gabe dauden aktak korporazioko kideei bidaliko zaizkiela sinatuta daudenean.

Halaber, Amieva andreak galdetu du ea Balorazio Batzordearen aktak eskura daitezkeen. Galderari buruzko kontsulta egingo zaio Zerga Kudeaketarako Bulegoari, bulego horretan egiten duelako lan Batzordeko idazkariak, Begoña Barrenetxeak, eta berak zaintzen dituelako Osoko Bilkurak proposamena onartu arte.

Jarraian Paula Amieva andreak udaltzaingoko sindikatuak agenteen postu mota desberdinen arteko bereizketari buruz egindako aldarrikapenari buruz galdetu du. Lakarra jaunak erantzun dio SVPE sindikatuak agenteen artean postu bakarra ez egotea eskatzen duela, baizik eta 4: herritarren segurtasuna, auzozaina, atestatuak eta koordinazioa/ikerketa. Eskaera hori ez dator bat gainerako lanpostuekin jarraitutako ereduarekin, agentearen substratua edo funtsezko edukia komuna delako, nahiz eta funtzioen hedapenean zereginak desberdinak izan, beste lanpostu batzuekin gertatzen den bezala. Era berean, agenteen plazak deitzen direnean ez da bereizten agente moten artean, titulazioa eta prestakuntza-ikastaroak berberak dira, eta abar.

Kontuan hartuta Amieva andreak espedienteari buruzko galdera gehiago

añade que no va a ser necesario hacer una nueva valoración, aunque sí habrá fases de mantenimiento o actualización.

Pregunta doña Paula Amieva si están firmadas todas las actas de la Mesa de Negociación. Responde el Sr. Lakarra que las referidas a la valoración están todas firmadas. Se señala que se remitirán a los corporativos las actas que faltan por mandar en cuanto estén firmadas.

También pregunta la Sra. Amieva si se puede acceder a las actas del Comité de Valoración. Se remite para su consulta a la oficina de Gestión Tributaria, que es donde trabaja la Secretaria del Comité, Begoña Barrenetxea, quien las custodia hasta la aprobación de la propuesta por el Pleno.

A continuación doña Paula Amieva pregunta por la reivindicación del sindicato de policía acerca de la diferenciación entre distintos tipos de puestos de agente. El Sr. Lakarra contesta que el sindicato SVPE reclama que no haya un único puesto de agente sino 4: seguridad ciudadana, auzozaina, atestados y coordinación-investigación. Dicha petición no se ajusta al patrón seguido con el resto de los puestos, ya que el sustrato de agente o contenido esencial es común, aunque en el despliegue funcional las labores difieran, al igual que ocurre con otros puestos de trabajo. De igual forma, cuando se convocan plazas de agente no se diferencia entre tipos de agente, la titulación y los cursos de formación son los mismos, etc.

Dado que la Sra. Amieva plantea que tiene más preguntas acerca del

dituela planteatu duela, Uriarte jaunak adierazi du bere ustez gaia sakon azaldu dela. Hala ere, egin nahi dituen gainerako galderak etenik gabeko zerrenda baten emateko eskatu dio. Amieva andreak honako hauek planteatu ditu:

Zeintzuk dira, adierazi den bezala, balorazioa finantzatzeko amortizatuko diren plazak? Horrek esan nahi du debiderapena egon dela kalkulaturako kostuarekiko?

Nola eragin diote prozesuari 2018ko martxoaren 28ko Osoko Bilkurako 40 zk.ko erabakiaren aurka aurkeztu zen errekurtoak eta beste beste errekurto batzuek, halakorik balego?

Nork zehaztu eta esleitu dizkie graduak faktore guztiei?

Zergatik bilera batzuetan adierazten da sindikaturen batek eskatzen duela eta SVPE denean espresuki siglak jartzen dira?

Zeintzuk dira espedientearen txostenean aipaturako balorazioaren ondorio positiboak edo abantailak?

Erantzunik eman al zaie egindako alegazioei?

Azkenik, eskatu du onar dadila LPZri dagokionez erakunde autonomoekin hartutako konpromisoa.

Uriarte jaunak hitz egiten hasi da eta, lehenengo eta behin, berretsi egin du behin udalarena amaituta, gobernu taldeak prozesua erakunde autonomoetan garatzeko konpromisoa hartu duela, baina gogorarazi du erakunde autonomoak direla, nahiz eta langileen sailaren

expediente el Sr. Uriarte indica que entiende que el tema ha sido profusamente explicado. No obstante le insta a relacionar sin interrupción el resto de preguntas que quiere hacer. Las cuestiones de la Sra. Amieva son las siguientes:

¿Qué plazas se van a amortizar para financiar la valoración, tal y como se ha señalado? ¿Eso supone que ha habido desviación respecto al coste estimado?

¿De qué forma han afectado al proceso el recurso planteado contra el acuerdo plenario nº 40 del 28 de marzo de 2018 y otros posibles recursos, en caso de haberlos?

¿Quién ha determinado y asignado los grados a todos los factores?

¿Por qué en algunas reuniones se indica que algún sindicato pide y cuando se trata de SVPE se ponen las siglas expresamente?

¿Cuáles son los efectos positivos o ventajas de la valoración citados en el informe del expediente?

¿Se ha dado respuesta a las alegaciones realizadas?

Por último solicita que se reconozca el compromiso adoptado con los organismos autónomos en relación con la VPT.

Comienza el Sr. Uriarte reiterando el compromiso del equipo de gobierno de llevar adelante el proceso en los OOAA una vez finalizado el del ayuntamiento, si bien recuerda que son entes autónomos, aunque contarán con el asesoramiento del

aholkularitza izango duten. Graduak Langileen Batzordeak esleitu dituela adierazi du.

Beste alde batetik, Lakarra jaunak gogorarazi du erakunde autonomoek beren ordezkaritza sindikal propioa dutela, eta balorazio prozesu propioa jorratuko dutela eta horretarako babesa eskatuko digutela. Langileen Saila graduen eta faktoreen egile intelektuala dela ere erantzun du, baita erabilitako arau eta tresna ere. SVPE berariaz aipatzeari dagokionez, sindikatu horren esku hartzearen intentsitatearekin bat egiten da. Amortizazioari dagokionez, balorazioaren finantzaketak kostu hori nolabait arindu dezaketen gaiak aztertzea eskatzen du, beti ere ahaztu gabe balorazioaren kostu osoa soldata-masa globalean sartzeko moduan egin dela, eta horrek aurrekontuen legeak eskatzen dituen baldintzekin lotzen du. Gaineratu du ez dela aurreikusitako kostuarekiko desbiderapenik egon, ez zegoelako aurrez finkatuta. 2018ko erabakiaren aurka aurkeztutako errekurso judizialari dagokionez, zehaztu du, orain aurkeztu den proposamenara iristeko egindako lana ikusita, agerian geratu dela hura ez zela balorazio-prozesu bat izan, eta azaldu du ezin duela baloratu errekursoaren eragina oraindik horri buruzko epairik eman ez delako. Hala ere, bere ustez, epaia negatiboa balitz, ez luke birtualtasunik izango, balorazioak xurgatu egin baitu.

Proposamenaren berri eman eta bozketara eramanez ondoren, emaitza honako hau izan da: **aldeko 8 boto (EAJ, EH Bildu eta PSE-EE); eta 3 abstentzio (PP eta Elkarrekin Podemos).**

departamento de personal. Indica que los grados los ha asignado el comité.

Por su parte, el Sr. Lakarra recuerda que los OOAA tienen su propia representación sindical y abordarán su propio proceso de valoración para lo que nos pedirán apoyo. También responde que el departamento de personal es el autor intelectual de los grados y los factores, así como de las normas y la herramienta utilizadas. En cuanto a la mención expresa a SVPE, se hace en justa correspondencia a la intensidad de la intervención de dicho sindicato. Respecto a la amortización, la financiación de la valoración requiere analizar aquellas cuestiones que pueden paliar en alguna medida ese coste, sin olvidar que la valoración se ha hecho de forma que su coste total quepa en la masa salarial global, lo que enlaza con los requisitos exigidos por la ley de presupuestos. Añade que no ha habido desviación respecto al coste previsto ya que no estaba prefijado. En cuanto al recurso judicial planteado contra el acuerdo del 2018, precisa que, a la vista del trabajo realizado para llegar a la propuesta que ahora se trae, ha quedado en evidencia que aquello no fue un proceso de valoración y explica que no puede valorar la incidencia del recurso al no haber recaído sentencia todavía. A pesar de ello entiende que de ser una sentencia negativa no tendría virtualidad ya que lo ha absorbido la valoración.

Dada cuenta de la propuesta, y sometida a votación, arroja el siguiente resultado: **8 votos a favor, PNV, EH Bildu y PSE-EE y 3 abstenciones de PP y Elkarrekin Podemos.**

Ondorioz, eta Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkurari egin zaio hurrengo:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, se eleva al Pleno la siguiente:

ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

LEHENENGOA.- Udalean dauden arloen barruan honako **UNITATE** hauek **SORTZEA** eta lanpostuak horiei atxikitzea, Osoko Bilkuraren erabaki honi erantsitako Lanpostuen Zerrendan jasotzen den bezala:

PRIMERO.- CREAR las siguientes **UNIDADES** dentro de las áreas existentes en el Ayuntamiento y adscribir a las mismas los puestos de trabajo tal y como se recoge en la Relación de Puestos de Trabajo que figura anexa al presente acuerdo plenario:

1. Gobernu Irekirako eta Modernizaziorako Arloa:
 - Komunikazio Unitatea.
 - Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Unitatea.
 - Euskara Unitatea.
 - Kalitate eta Kudeaketa Aurreratuko Unitatea.
 - Gardentasunerako eta Herritarren Partaidetzarako Unitatea.
 - Administrazio Unitatea.
2. Gizarte Kohesiorako Atala:
 - Gizarte Zerbitzuen Unitatea.
 - Esku-hartze Sozio-komunitarioko Unitatea.
 - Administrazio Unitatea.
3. Herritarren Segurtasun Arloa:
 - Herritarren Segurtasunerako Unitatea.
 - Herritarren Segurtasunerako Unitate Tekniko-Administratiboa.
4. Hirigintza-plangintza, Kudeaketa eta Diziiplina Arloa:
 - Hirigintza-Plangintzako eta

1. Área de Gobierno Abierto y Modernización:
 - Unidad de Comunicación.
 - Unidad de Tecnologías de la Información y las Comunicaciones.
 - Unidad de Euskera.
 - Unidad de Calidad y Gestión Avanzada.
 - Unidad de Transparencia y Participación Ciudadana.
 - Unidad Administrativa.
2. Área de Cohesión Social:
 - Unidad de Servicios Sociales.
 - Unidad de Intervención Socio-Comunitaria.
 - Unidad Administrativa.
3. Área de Seguridad Ciudadana:
 - Unidad de Seguridad Ciudadana.
 - Unidad Técnico-Administrativa de Seguridad Ciudadana.
4. Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística:
 - Unidad de Planeamiento y Gestión

- | | |
|--|--|
